

Prentsa oharra

LAB sindikatua ez da joan gaur goizerako (09-05-27) Hezkuntza Sailak Lakuan antolatu duen ekitaldira.

Gaur goizerako Hezkuntza Sailak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskola publikoan lan egiten duten erakunde desberdinetako ordezkariekin (sindikatuak, guraso elkarteak eta zuzendari elkarteak) ekitaldia eta geroagoko lan bilera antolatu ditu. Eta **LAB sindikatuak bilera horretara ez joatea erabaki du, bilera horrekin Isabel Celáa buru duen Hezkuntza Sailak argazkien bila joan delako, ekitaldia autopropagandarako erabiliz.**

LAB sindikatuarentzat **PSE-EE alderdiak eta Hezkuntza Sailak sektoreko langileak, eskola komunitateak eta jendarteak berak hezkuntzaz kezka iturri dituzten gaiei erantzuna ematen hasi beharrean, hezkuntzako sektore publikoko elkarrizketa sozialaren argazkia erabili nahi du lasaigarri moduan, sektoreak lasaigarriak baino erantzunak behar dituenen.**

Eta hauek dira nagusiki, LABen ustez, **Hezkuntza Sailak, PSE-EEko Gobernuak erantzun behar dituen gaiak:**

- Hezkuntzarako gastu publikoa handiagotuko al dute?
- Sisteman sartu berrien artean, jangeletan, eskolaz kanpoko jardueretan dagoen prekarietatea, behin-behinekotasunari nola aurre egingo dion?
- Zerbitzu azpikontratazioekin (jangela, garraio, garbiketa, ...) jarraitu behar al du?
- Sektoreko langileen lan baldintzen homologazioari ekingo al dio?
- Derrigorrezko Hezkuntza amaitutakoan ikasleak euskaldunak ere izateko zer proposatu behar du?
- Pasa den maiatzaren 21ean Gobernu horrek oinarrizko zerbitzutzat jo zuen haur eskolen eskaintza unibertsala eta doakoa noizko? Edo orain bezala errentarik baxuena dutenen seme alabak bazterturik jarraituko al dute?
- Euskal Herriko beste lurraldetan zergatik ez lagundu euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten ikastetxeak?
- Negoziazio kolektiboan noizko jarrera irekia urtetan blokeaturik dagoen heziketa bereziko lan hitzarmenarekiko? Noizko errespetuzko jarrera sukaldari eta garbitzaileekiko? Gehiengo osatzen ez duten sindikatuekin lan hitzarmenik sinatuko al du?

Eta **LABen ez dugu uste gai hauen guztien aurrean Hezkuntza Sailak erantzun egokirik duenik;** aitzitik, egiten ari diren diru publikoaren desbideraketarekin hezkuntzan ere gastu soziala murriztuko da, gure lan baldintzetan eta sektore egoeran eraginez. Horregatik, **argazkiak baino erantzunak behar ditugun honetan, horiek ez dira Hezkuntza Sailaren eskutik iritsiko, baizik eta, maiatzaren 21ean bezala, erantzunak hezkuntzako langileen eta jendartearen eskutik etorriko dira.**